
PRENTSA OHARRA

TANIA BLANCO ARTISTAK ELIKAGAI INDUSTRIAREN BERRIKUSTE KRITIKOA EGITEN DU 'UNLID' ERAKUSKETAN

Bilboko Udalaren arte produkzio zentroak ekoizpen propioko erakusketa honetako atea zabalik izango ditu urriaren 26tik azaroaren 17ra bitartean

(Bilbon, 2017ko urriaren 26an). BilbaoArtek 'Unlid' izenburuko erakusketa berria inauguratuko du bere erakusketa aretoan, 2016an bekadun izan zen Tania Blanco artistaren eskutik. Aldi honetan, supermerkatuetan aurkitu ditzakegun produktuen erreproduzio zehatzak eta logo zorrotzekin beteko da erakusketa aretoa, ikusleari hauek dauden aldaketa grafikoak aurkitzera desafiatuz. Artista valentziarrak hitz-joko ironikoak egiteaz baliatzen da instalazio honetan, elikadura industrialaren disfuntzioak seinatzen dituen publizitatearen kontrako komunikazio-estrategia bat erabiliz.

Erakusketak, 2016 eta 2017 bitartean Bilbao eta Paris artean garatua, janaria ekoizteko eta banatzeko era berrietan eta hauek marketina eta publizitatearekin daukaten harremanean ardatzen du bere analisia. Horrela, osasunerako ezkutuko arriskuak dakartzaten elikagai-politikak, eta elikagaiak ekoizten eta banatzen diren lan baldintza kaskarrak salatzen ditu Blancok.

Bere lanaren bi gai nagusiak laburbiltzen ditu proiektu honetan Tania Blancok: alde batetik, aurrerapen tekno-zientifikoak eta hauen naturatik urruntzeko joera, gaur egungo nekazaritzako elikagaien industriaren dimentsio biologikoarekiko kezkan adierazita geratzen delarik erakusketa honetan. Bestetik, informazioaren kontrolaren arazoa, marketina eta publizitateak negozio horri eskaintzen dioten informazio-manipulazioan adierazita.

'Unlid' diskurtsoaren desitxuratzeko kritika edo objektua transmititzen duen narratibarekiko proposamen satiriko bat da. Gainera, aipu egiten die elikagaiak ekoizten edo banatzen dituzten markei (Lidl, Mercadona, Roundup, Kellogg's...): haiekin hitz-joko ironikoak edo logoarekin txantxa grafikoak egiten ditu, publizitatearen kontrako komunikazio-estrategia batean.

Erakusketa ikusgai egongo da astelehenetik ostiralera bitartean eta 17:30etik 20:30era, 2017ko urriaren 26tik aurrera eta azaroaren 17ra arte. Doako sarrera.

TANIA BLANCORI BURUZ

Tania Blanco gaur egun Londresen bizi eta lan egiten du. 2017an aukeratu zuten hiru urtez parte hartzeko Royal Academy of Arts-en sormen artistikoaren Graduondo Programan. Tania Blanco San Carlos Arte Ederretako Fakultatean (Valentzia) lizentziatua da (2001); Middlesex Universityn (Londres) egin zuen ikasketen zati bat.

Ikasketak amaitu ostean, arte-egonaldietan parte hartu du, eta hainbat beka jaso ditu: Pollock-Krasner Foundation Grant beka (New York, Estatu Batuak), Velázquez-en Etxearen urteko egonaldi-beka (Académie de France à Madrid-Valentziako Udala), BilbaoArte Fundazioaren arte-ekoizpeneko beka, Fundación Especial Caja Madrid-en beka (Generaciones 2014), Bogliasco Foundation-en egonaldi-beka (Liguria Arts Center, Genova), Caixa Galicia Fundazioaren arte-sormeneko beka, Alfons Roig bekaren XX. edizioa (Valentziako Diputazioa), Espainiako Kultura Ministerioaren Formarte egonaldi-beka (Collège d'Espagne à Paris) eta Pariseko Cité Internationale des Arts-eko egonaldia. Zenbait sari ere irabazi ditu: BMW XXX. Margolaritza Sarietako Berrikuntzako Saria eta Valdepeñas-eko Margolaritza Sariaren 74. edizioa, bestek beste.

Halaber, Tania Blancoren lanekin banakako erakusketak egin dira museo eta galerietan: Parpalló Aretoa (Valentzia, Espainia), Alarcón Criado Galeria (Sevilla, Espainia), Perpignan-eko Arte Garaikidearen Zentroa (Frantzia). Eta taldekako zenbait erakusketetan ere parte hartu du, arte-zentroetan Beall Center of Art & Technology (California, Estatu Batuak), Centquatre (Paris, Frantzia), La Casa Encendida (Madril, Espainia) eta Arte Garaikidearen Ferietan SUMMA (Madril, Espainia), KIAF (Seúl, Korea), CIGE (Beijing, China).

Informazio gehiago / Más información



BilbaoArte

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto

607 606 458

e-mail:prentsa@bilbaoarte.eus

NOTA DE PRENSA

LA ARTISTA TANIA BLANCO HACE UNA REVISIÓN CRÍTICA DE LA INDUSTRIA AGROALIMENTARIA EN LA EXPOSICIÓN 'UNLID'

El centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao tendrá abiertas las puertas de esta muestra de producción propia entre el 26 de octubre y el 17 de noviembre

(Bilbao, 26 de octubre de 2017). BilbaoArte inaugura bajo el título *Unlid* (Destapar) su última exposición individual del año de la mano de la artista becada en 2016 Tania Blanco. En esta muestra, la sala de exposiciones se llenará de rotundos logos y minuciosas reproducciones de productos que habitualmente podríamos encontrar en los supermercados, retando al espectador a descubrir una serie de alteraciones gráficas. La artista valenciana recurre a irónicos juegos de palabras haciendo uso de una comunicación contra-publicitaria que señala las disfunciones de la alimentación industrial.

La exposición, desarrollada a lo largo de 2016 y 2017 entre Bilbao y París, centra su análisis en las nuevas formas de producción y distribución de la comida y su relación con el marketing y la publicidad. Blanco denuncia así que las políticas alimentarias permitan enmascarar riesgos para la salud o que se oculte la explotación laboral bajo la que a menudo son producidos o distribuidos los alimentos.

Tania Blanco une en este proyecto dos de las principales cuestiones de las que se ocupa en su trabajo: por un lado, el desarrollo tecno-científico y su separación de la naturaleza, expresada aquí en la preocupación por la dimensión biológica de la industria agroalimentaria actual. Por otro, el problema del control de la información, expuesto en la muestra como la manipulación informativa que el marketing y la publicidad le ofrecen al negocio alimentario.

Unlid es una propuesta satírica de tergiversación crítica del discurso o de la narrativa que el objeto de consumo transmite, con referencias a marcas de producción o distribución alimentaria (Lidl, Mercadona, Roundup o Kellogs) con las que establece irónicos juegos de palabras o sarcasmos gráficos, en una estrategia de comunicación anti-publicitaria.

La exposición permanecerá abierta de lunes a viernes de 17.30 a 20.30 h. entre el 26 de octubre y el 17 de noviembre de 2017. Entrada gratuita.

SOBRE TANIA BLANCO

Tania Blanco actualmente participa en el Programa de Posgrado de creación artística de la Royal Academy of Arts de Londres. Es licenciada por la Facultad de Bellas Artes de San Carlos (Valencia) en 2001, habiendo completado parte de sus estudios en la Middlesex University (Londres).

Desde que terminó sus estudios ha participado en residencias artísticas y recibido becas como la Pollock-Krasner Foundation Grant (Nueva York, Estados Unidos), la beca de residencia anual de la Casa de Velázquez (Académie de France à Madrid), la beca de producción artística de la Fundación BilbaoArte, la beca de la Fundación Especial Caja Madrid (Generaciones 2014), la beca de residencia de la Bogliasco Foundation (Liguria Arts Center, Génova), la beca de creación artística de la Fundación Caixa Galicia, la beca Alfons Roig (Diputación de Valencia), la beca Formarte del Ministerio de Cultura (Collège d'Espagne à Paris), o la residencia en la Cité Internationale des Arts en Paris. También ha sido distinguida con premios como el Premio a la Innovación del XXX Premio de Pintura BMW o el Premio de Pintura de Valdepeñas en su 74 Edición.

El trabajo de Tania Blanco también ha sido mostrado en exposiciones individuales en museos y galerías como la Sala Parpalló (Valencia, España), la Galería Alarcón Criado (Sevilla, España) o el Centro de Arte Contemporáneo de Perpignan (Francia). También ha participado en diversas exposiciones colectivas en centros de arte como el Beall Center of Art & Technology (California, Estados Unidos), el Centquatre (Paris, Francia) o La Casa Encendida (Madrid, España).

Informazio gehiago / Más información



BilbaoArte

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto

607 606 458

e-mail: prentsa@bilbaoarte.eus